

Barraskiloek baino bat gehiago

Ane Labaka Mayoza



Barraskiloe**k** baino bat gehiago

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;
91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Egileak literatur sorkuntza sustatzeko Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailaren laguntza jaso du liburu hau idazteko.

1. argitalpena: 2023ko irailean

Azaleko irudia:

Mariñe Arbeo Astigarraga

Maketazioa:

Erein

© Ane Labaka Mayo

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-911-6

L.G.: D 817-2023

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Barraskiloek baino bat gehiago
Ane Labaka Mayo

erein

Oskoldun guztiei

Akorduan daukat barraskilo bat zapaldu nuen aurreneko aldia. Bere oskola asfaltoaren aurka nola birrintzen zen sentitu nuen.

Krak.

Mila zati txiki nire zolapean.

Krak.

Nazka handia eragin zidan. Eta tristura. Tristura sakona.

* * *

Aitak eta amak asteak zeramatzaten elkarrekin ikamikan; sagua eta katua nola, ezkutaketa-harrapaketa jolas amaigabea. Niretzat horrenbesterainokoak ez zirenak txinparta bizi bilakatzen zitzaizkien mihi-puntetan

eta, ohartzerako, haize bolada ikusezin batek hauspututa bezala, sutu egiten zitzaizkien begiak eta ezpainertzak. Herensugetu egiten ziren.

Behinola, tripazorrien agindupean mahaia prestatu eta nire aulkian eseri nintzenean, amaren betazalei kea zeriela jabetu nintzen. Bat-batean, ekaitza lehertu zen makarroi egin berrien usaina zuen sukaldearen barruan. Amaren oihuei aitarenak txirikordatu zitzaizkien jarraian eta, trumoi-hotsa baretu arte mahai azpian gordetzeko zorian nengoela, parean neukan sardexka hartu eta hutsik zegoen plater sakona tarratatzen hasi nintzen indarrez. Soinu karrankari horren ostean, isiltasun ozen batek bete zuen amaren, aitaren eta nire arteko espazioa. Nork bere baitara bildu-bildu eginda bazkaldu genuen.

Sukaldeko mututasuna etxe osoan barrendu zen gutxinaka; jostailuen kutxa egurrezkoetik hasi eta aitak gerezi zaporeko gozokiak nik hartu ez nitzan ezkutatzen zituen tiradera alturaino. Handik gutxira utzi zioten gurasoek elkarrekin haserretzeari. Aurrez garbigailuan zorabiatutako arropa umelak eskuz esku esekitzeari. Galtzerdiak bikotetu, atzamarretan kokatu, eta txotxongiloak antzezteari. Maindire lehortu berriak tolestu ahala bi ahotsetara kantatzeari. Eta elkarrekin lo egiteari.

Gau haizetsu batean ohartu nintzen. Bele beltz aldra bat lehertu zen nire logelako pertsianaren aurka eta, loezinaren mende ohean bihurrika aritzeaz nazkatu nintzenean, komunera altxatzea erabaki nuen. Hurrengo egunetan laztan ikusezin bilakatu ziren kanpoaldeko haizete zakarrak, baina nik banerabilen barruan zerbait, ez gau-ez egun izaten ez den tarte horretan izarapetik aterarazi eta ilunantzean hanka-puntetan ibiltzera bultzatzen ninduena.

Komunera haztamuka jaikitzen nintzenero bi gura-soetako bat topatu ohi nuen salako sofa-ohean, gorputza erabat kizkurtuta. Malguki puntadunek dardo traza hartzen zuten denborarekin, intziri egiten zuten, eta gainean zetzanari bizkarra zulatzen zioten gupidagabe. Aitak eta amak bertan egiten zuten lo, ordea. Txandantxandan.

Lehenago, bi gorputz haien artera uzkurtzen nuen nirea. Haragizko babeslekua zen niretzat. Nahikoa hazi nintzela eta nire logelara lekualdatu behar nuela erabaki genuen arte. Erabaki zuten arte. Trukean, gauero ipuin berri bat kontatu beharko zidatela izan zen nik jarritako baldintza. Istorioak irauten zuen bitartean, begiak zabal-zabalik mantentzen ahalegintzen nintzen, betile berunduak nola edo hala sabaiari itsasten, eta estu heltzen nion kontalariari eskutik, lo hartzen banuen ere

inora alde egin ez zezan. Alferrik. Nahi baino lehenago lozorrotzen nintzen beti.

Kontalariak azken musu bat ematen zidan masailan, edo sorbaldan, edo besaurrean, edo oin puntan. Izaretatik kanpora agerian geratu zitzaidan gorputz zatiren bat hautatzen zuen ausaz; gauero bat. Aukeran horrenbeste izanik, zaila zait ulertzea zergatik ematen dituen jendeak musuak beti-beti leku berean.

Larunbat eta igandeetan, hanka hots arin goiztiarrak entzuten ziren gure etxeko pasillo luzean eta, katu persiar baten eran, gurasoen izaraperaino egiten nuen jauzi. Larunbat eta igandeetan aitak egindako krepeak gosaltzen genituen ohatzean bertan. Aitak egindako krepeak, eta laranja zukua.

Harik eta aitak eta amak ohe bereizietan lo egitea erabaki, eta guztia txandaka egiteari ekin zioten arte. Zukua inoiz baino garratzagoa bilakatu zen orduan eta, lehenago ez bezala, txokolategen blaitutako krepeak binan-binan irensteko gogorik gabe iratzartzen hasi nintzen asteburuetan.

Iluntze batean, afalostean zerbait kontatu behar zidatela esan zidaten aurpegi serioarekin, inoiz inori begiztatu diodan aurpegirik serioenarekin. Urduritzen naizenetan hozka egiten diet azazkalei. Gau hartan ez nuen beste ezer afaldu.

—Entzun, maitea, aitatxo eta amatxo banandu egingo gara.

Negar egin nuen. Isilka. Begien atzealdea urmaeltzen zitzaidala sentitu nuen eta, segundo gutxiren buruan, hiru malko lodi jausi zitzaizkidan plateraren gainera.

Plof. Plof.

Eta plof.

Hiztegiara jo nuen inork eman nahi ez zizkidan erantzunen bila.

Banandu.

da/du ad. 1. Elkaturik, baturik zegoena bereizi edo sakabanatu. *Haurrak banandu egin ditu maisuak.* 2. Ik. **bana(tu)**.

Banandu «banatu» aditzaren baliokidea izan daitekeela ulertarazi zidan horrela hiztegiak.

Banatu, kartak egiten dira. Ikasturte amaierako antzerkian gutako bakoitzak jokatu zuen rola ere banatu egiten genuen gelakideon artean. Urtebetetze festetan, berriz, kandlei putz egin, desio bat eskatu eta tarta-zatiak banatzeko ardura –eta zorzea– izan ohi zuen urteak betetzen zituenak.

Baina banandu?

Zaila da penari tamaina jartzea.

Triste sentitzen nintzen, goibel. Nola liteke *goibel* hitza *triste* bera baino are tristeagoa izatea? Abesteari utzi niolako dakit hala sentitzen nintzela. Kantu kuttunen bat doinutu ordez, goiko hortzak karraskatzen nituelako behekoen aurka, azazkal-ertzak haragi-bizitan neramatzalako, eta jada ez nuelako papiroflexiazko igelak egiteko besteko egonarririk. Bazirudien eskulanetarako trebezia galdu nuela gauetik goizera.

Har lodi zuriak hazi zitzaizkidan erraietan eta barrua jaten ari zitzaizkidan gutxika-gutxika. Kraska, kraska, kraska. Mamurtzean ateratzen zuten zaratak estaltzen zizkidan belarri-zuloak. Kraska, kraska, kraska. Ez nintzen beste ezer entzuteko gai.

Egun osoa igaro nahi nuen nire gelan gotortuta. Neguko pijama potoloak, artilezko galtzerdiek eta oreztaz zipriztindutako nire azal zuriak ilunpetan bat egin zezatela desiratzen nuen, beste ezer baino areago. Kopeta-argia lagun, nik nahi nuen moduko mundutxo sor nezakeen edredoi more tantodunaren azpian. Mundutxo bat non azalore egosiaren usainak, kolore grisak eta gezurrek lekurik izango ez zuten. Mundutxo bat non izurdeek hegan egin zezaketen, adarbakarrek urpean igeri, amapola gorriek hodeien gainean dantza,

eta pertsonak, garrasika beharrea, kantu bidez hitz egiten zuten.

Gurasoek hitzeman zidaten gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatuko zirela. Niri ahalik eta gutxien eragiten ahaleginduko zirela errepikatzen zuten behin eta berriro; denon mesederako ari zirela eta, guztiaren gainetik, nire on beharrez. Nik, ostera, sokatira etengabea sumatzen nituen; tenka, tenka eta tenka.

Batek koloretako plastilinarekin lohitzeko baimena ematen zidanean, eskolako lanak egin behar nituela agintzen zidan besteak, edo alderantziz. Ni erdiko zapia nintzen, joko-eremu batetik bestera noiz igaro zaren zehazten duena. Zintzilik nengoen. Eta korapilatuta.

Non lotaratuko naiz aurrerantzean? Nora egingo dut jauzi larunbat eta igande goizetan? Nor arduratuko da gauzez pasilloko argia piztuta uzteaz? Nork prestatuko dit kamamila sabeleko piztiak aztoratzen zaizkidanean? Nork egingo dit putz lepatzean? Nork kili-kili oinazpitan? Norekin joango naiz bidegorrira patinetan ibiltzera? Nork bultzatuko dio zabuari ia-ia zerumuga uki dezadan? Zein armairutan gordeko dut neguko arropa? Eta bainujantzi loreduna? Eta hegatsak? Nor arduratuko da Urdini eta Gorriri astean behin ura aldatzeaz? Nola erdibituko ditut jostailuak? Norena da errua?

Igerilekutik ohi baino lehentxeago iritsi nintzen behin etxera, eta kolorea galdutako album bat orritzatzen topatu nuen aita salan. Hilabete batzuk lehenagotik neureak nituen giltzekin sartu nintzenez, kuxin beixen artean hondoratuta zeukan aitak bere gorputz mehar kandelakara; bazirudien une batetik bestera besaulkiak barrurantz xurgatuko zuela, hurrup, eta desagertu egingo zela, betiko. Ni ikustean bizkarrezurra kolpetik tentetu eta disimulatzen saiatu zen arren, nabari zuen begi-hondoak gainez egitear zituela. Motxila lurrera jaurti eta, ez bat eta ez bi, haren altzoan eseri nintzen. Artean hezetuta nekarren ilea nola-hala orrazten ahalegindu nintzen atzamar puntan laguntzaz; alanbrezko bizar urria laztandu nion berari.

—Kontatu al dizut sekula duela hamar bat urte amak eta biok elkarrekin hegan egin genueneko?

—Hegan? —erantzun nion nik irrikaz, hitz labur horrek nigan sortzen zuen zirrara bi silabatan kabiarazi nahiz.

He-gan.

—Uda sargori batean Turkiara bidaiatu nuen amarekin batera. Koloretako globoan ibili ginen han, lainorik laino, eta bidai hartantxe erabaki genuen guraso izan nahi genuela.